IDATZ & MINTZ

Literatur atalen sorta

55

Aurkibidea: Lourdes Unzueta: BEGIRATU EGIN ZIDAN. **3**. Jabier Kalzakorta: XVIII. MENDEKO GIPUZKOAKO AMODIOZKO OLERKI BAT: *ITSASORA IRTEN NAIZ*. **7**. Iratxe Ormatza Imatz: PLAZERA DA. **15**. Jesus Antonio Etxezarraga: ARBITER BIBENDI. **19**. Eneko Urizar: POEMAK. **21**. Xabier Boveda: EAKO MARINELAREN ILOBA. **23**. Sebastian Gartzia Trujillo: ZAUDEN LEKUA LUR SANTUA DA (IR 3, 5) (JOXAN ARTZEREN OLERKIGINTZARA HURBILKETA). **27**. Sebastian Gartzia Trujillo: LAUAXETAREN LUDI HONEN BESTALDEZ LIBURUAREN AURKEZPENEAN. **33**.

ARGITARATZAILEA
Labayru Ikastegia
Literatura saila

IDAZKARITZA BATZORDEA
Adolfo Arejita
Asier Astigarraga
Jesus A. Etxezarraga
Jabier Kalzakorta
Miren Agur Meabe
Lourdes Unzueta
Andres Urrutia

ARDURADUNA
Igone Etxebarria



Argitalpen hau Bilbon irarri da 2013ko abenduan, Gestingraf, S.A.L. etxean, eta Ikur Fotokonposaketak taiutu dau Times letra moldeaz. Azaleko irudia Olga Seco, gainerakoak «Erté graphics», «Big book of silhouettes» eta «3.800 early advertising cuts» liburuetatik atera izan dira.

LABAYRU IKASTEGIA
Aretxabaleta, 1-1ngoa
Tel.: 94 443 76 84 - Fax: 94 443 77 58
Posta elektronikoa:
labayru@labayru.org
48010 BILBAO

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística

BFA DFB
Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia

bbk

LOURDES UNZUETA

Begiratu egin zidan

Begiratu egin zidan. Bai, neuri begiratu zidan eta haren begirada nire begietan iltzatuta gelditu zitzaidan. Zerbait eskatuko bailidan begiratu zidan Maitek, horixe iritzi nion hasiera baten, zerbait eskatzen duenaren begirada iritzi nion harenari. Hain azkar pasatu zen Maite nire aurretik, hain arina izan zen bere begirada, ez nuela astirik ere izan erantzunik emateko, Maite erantzunaren zain zegoen ere jakiteko ez nuen denborarik izan.

Pasatu eta gero berandu zen erantzuteko. Eta hori, berriro diot, Maite erantzunaren zain balego, askotan besteen begiradak norberarenak bailiran interpretatzen ditugu eta, horrela begiratu dit, hauxe esan gura izan dit, askotan bete-betean jotzen dugu interpretazioan, beste askotan erratu egiten gara.

Harrez gero haren begiak neureetan, haren begiak neureekin zihoazen, egunero, gau eta egun, ikusi ere haren begiekin ikusten nuela ematen zuen. Hasieran, nik neuk lehenago ikusten nuena, neure barrua, neure ingurua, neure paisaiak, neure poztasuna, neure beldurrak, hauxe guztia ikusten zuten neureganatutako haren begiek, baina gerotxoago, ezari-ezarian, konturatzerako, lehenago haren begiek ikusten zutena ikusten hasi ziren neureak.

Zapelatza, zapelatza dator eta goiko zeruetatik beheko baso eta belartzak begiztatzen dituzte haren begi okerrek, dena dauka kontrolpean, kontrolik barik dagoenari laster lerratu araziko dio haren begirada zorrotzak.

Paisaia errea dakusate Maiteren begiek. Alanbrea lakoxe zuhaixka makur eta bihurriak, goiko ertzetan argiontzi txikitxoak dituztelarik, ixetu eta amatatu, ixetu eta amatatu; eta ia errotik kiskalitako arbola motzondoak.

–Zelan Maite?

–Hementxe.

–Ondo, ezta?

–Hala hola.

–Berririk bai, berririk, lehengo hilabetetik hona?

–Berririk, berririk, bai, esaten nion ba egongelako lanpararena, ixetu eta amatatu, ixetu eta amatatu zebilela; azkenean, bonbilla erre zaio.

–Bonbillarena, bai. Eta, etxeko kontuetaz aparte, beste berriren bat, aipatzekorik, zugan eraginik izan duen berriren bat edo?

–Esan diot ba, lanpararі bonbilla erre zaio, eta harrez gero, argi-itzaletan nago.

–Argi-itzaletan beraz, ikusten dut, ez duzu beharbada askorik ikusiko.

–Ikusi ikusteko dagoenerako, nahiko ikusi eta ikusten dut.

–Ez zara eroso sentituko, argi-itzaletan esan nahi dut.

–Ez pentsa, argi-itzalak, ni neu, lasaitu egiten nau.

Maiteren aurrez aurre, galderak egiten ari zaiona, lasai dago, lasai itxurak egiten. Maiteren inguruan, laguntzen joan zaizkionak ez dira eroso sentitzen. Hilabeteroko eszena, hilabeteroko agertokia. Hilabeteroko antzezlari-zerrenda, antzezle nagusia beti bera segun eta nondik begiratzen zaion, bigarren mailako antzezleak txandaka, nekaduraren arabera aldarazi eta ordezkatuak. Argi-itzaletan haztamuka aurrekoa, ingurukoak, haztamuka denak ere.

–Lasaiago, beraz, lasaiago zaude argi-itzaletan. Lanparari bonbilla erretzearena, orduan, ez da zuretzako arazo izan.

–Ez dut nik inondik inora ere arazoa izan denik esan. Ez dit berorrek arazoetaz galdetu eta. Berririk, bai, berririk ete dagoen galdetu dit. Eta nik bonbillarena kontatu diot. Besterik ez.

Berbalari dago gaur Maite. Aurreko zitan kortxo-kentzekoak botilaren kortxoari tiraka nola, hala atera behar zitzaizkion berbak Maiteren barrunbeari. Arazoak beraz. Hortxe dago koska. Kortxokentzekoak botila barrutik askatutako jenioarena egin eta hainbat mamuri deitu die bere inguruan arazo berba sorginduak. Deserosotasunari dei egin dio. Hark eztul txikiak, begi ninien mugimendu azkarrak, hanken gurutzatzeak desgurutzatzeak erakarri ditu.

Berbalari dago gaur gure Maite diotso bere buruari galderak egiten ari zaiona. Lehengo hilabetetik hona kontatzeko ezer berririk duen ala ez itaundu eta ez dit ba zeharka (edo zuzen) arazoetaz itaundu behar diodala iradokitzen ba! Jakin badakit hori neuk ere. Arazoak. Zer da ba bestela bera eta bere etxekoak hona ekarri dituena. Arazoa izan da hona ekarri dituena. Edo arazoak. Edo nekeak edo batak bestea jasan ezina edo txartoulertuak, bakoitzak segun eta nondik begiratzen dion.

Arazoak beraz. Nork ez ditu ba arazoak. Baina helduko gara horretara ere, helduko diogu gaiari Maite. Nik neuk diodanean baina, neuk zuzentzen dut-eta elkarrizketa (bakarrizketa) hau. Zuk egin berba, neuk jarriko diet izena zure berbei.

–Ederto Maite. Arrazoi duzu. Esan didazu berriarena, lanpararen bonbillarena. Eta ametsik, izan duzu ametsik?

–Ametsik, ametsik. Zer nolako ametsa?

–Ametsa, ba ametsa. Edozelango ametsa.

–Edozelango ametsa, edozelango ametsa. Erraza da esaten. Badira izan egunez egiten diren ametsak, betetzen direnak batzuk, sekula ez betetzeko egiten diren beste batzuk; badira izan gauez egiten diren ametsak, amesgaiztoak eurotako asko.

Eztul txikiak handi egin dira, begi ninien mugimenduak zorabiatzeko modukoak, hankak zur eta lur gelditu dira.

Bart ez dut apenas lorik egin. Aspalditik datoz lo egiteko ditudan arazoak. Insomnioa dela esan didate. Hara berba berria. Insomnioa. Lo egin ezinari berba egokia jartzeak ez dit arazoa gutxitu. Irratian entzun nuen lehengo baten biztanleen ehuneko ez dakit zenbatek jasaten duen gaixotasuna-edo dela. Asko iritzi nion zenbatekoari. Gauez horrela gabiltzanok asko garela jakiteak ere ez nau kontsolatzen, nik gura dudana lo egitea da eta. Gauak aurrera eta, gero eta jasanezinagoa egiten zait gaua sabaiari begira igarotzea.

Txikitako komikietako pertsonaiek lo egin ezinik zebiltzanean ardiak zenbatzeari ekiten zioten, ardiak bata bestearen atzetik larrean, ardiak hesi gainetik saltoka, ardi zuriak, ardi beltzak, txikiak, handiak, ardi ernalduak, bildotsa erditu berriak. Ardiak zenbatu eta zenbatu, ez ziguten argitzen azkenean lorik egitea lortzen zuten ala ez, nik uste ardi zaintzan igarotzen zutela gau osoa, neka-neka eginda aurkitzen zituela egunsentiak.

Nik, ostera, pastillak zenbatzen ditut. Lo eragiteko pastillak. Egia esan, lo eragiteko pastillak bakarrik ez. Lo eragiten ez didaten lo eragileak gauez ohera joan aurretik hartzen ditut. Ustez lo eragiten didaten bitartean zenbatzen ditut. Goizean esnarazteko pastillak agindu zizkidaten, nik hartzeari utzi nion, gau osoa esna egonda zertarako behar nuen ba horrelako pastillarik, egunen batean esan beharko diot hau guztia medikuari, lo eragiten ez didaten lo eragileak hartzeari utzi diodala hain zuzen ere. Gosari ostean lasaigarriak eta depresioaren aurkakoak hartu behar ditut, bazkaria eta gero berriro lasaigarriak hartzeko.

Zu lasai Maite, zuk lasai egon behar duzu, ez arduratu. Horixe esaten didate denek. Lasaigarriak eta lasaigarriak agintzen dizkidate. Ni lasai nago. Lasai nago, nire inguruan urduritasuna gehituz doala nabaritzen dudan bitartean. Ni triste nago. Ni neka-neka eginda nago. Horixe da dena. Horixe esaten diet. Eta tristezia eta neke honekin amaitu gura dudala.

–Ametsa orduan. Edozelango ametsa. Hor doa ba. Bart ez dut apenas lorik egin. Bart eta herenegun eta aurreko ez dakit zenbat gautan. Insomnioa dela esan zidan berorrek. Lo eragiteko pastillak hartu arren. Aprobetxatu gura nuke beti ez ditudala hartzen esateko.

Harridura eta urduritasuna inguruan, hegaka. Aurretiazko susmo txarra egiaztatzen deneko beldurra eta nagusitasuna.

–Harira Maite, harira, ametsarena.

–Barkatu, bai, oraintxe noa. Bart ez dut apenas lorik egin baina egin dudan apurrean ametsetan ibili naiz. Nire betazalak berunezkoak zirela. Begiak zabaldu gura nituela, baina nire betazalen berunak ez zietela zabaltzen ixten. Betazal finekoa izan naiz beti. Betazal finak, malguak, zetazkoak ziren neureak. Aurrean nituenek, sugeak begietara nola, horrela begiratzen zidaten. Begiek erakarrita.

Begiak baino gehiago betazalak eta betileak esango nuke. Haien kliskak hipnotizatzeko gaitasuna zuen. Ametsetan baina betazalak berunezkoak ziren, esan diot. Eta berunezkoak izatea atsegina zitzaidan. Ez nuen betazal fin eta arinen minik. Begiak betirako itxi eta atseden hartzea gura dudalako. Horixe gura dudalako. Betazalen berunak horrexetan laguntzen didalako. Ametsa bai. Betiereko ametsa.

Harridura eta isiltasuna inguruan, hegaka. Galdera egin izanaren damua, berunezkoa. Entzun gura ez denaren oldarpena.

Lorik bako gauetan, beraz, pastillak zenbatzeari ekiten diot. Hobe beharraren esperantzaz tratamendua horrenbeste bider aldatu didatenez, hainbat eratako pastillak ezagutu eta jasan izan ditut: txikiak eta irensterrazak, inork irentsi ezineko handiak, borobilak, karratuak, obalatuak, erraz apurtzeko erdian marratxoa daramatenak, marratxo bakoak, hau guzti hau formari dagokionez. Koloreak aipatuko banitu ortzadarra eskas geldituko litzaidake: pastilla zuriak, horiak, berdeak, grisak, zuri eta grisaren artekoak, gorriak, fuksiak, larrosa kolorekoak, hara, ez dut marroi kolorekorik gogoratzen.

Kontu hauetan aditua naizenez, edo aditua egin nautenez, pastilla esatea ez da nahikoa, gehiago zehaztu behar da, eta badira izan konprimituak, kapsulak, tabletak, grageak, eta nik dakit zer gehia-

go ba. Lo egin ezinik eta nahiko lan jartzen diot neure buruari. Zenbatzeak ez dit lorik eragiten baina konpainia handia egiten dit gauetan. Konpainia, horixe da nik behar eta gura dudana.

Aditua naiz, edo aditua egin naute, eta ondo ere ondo ezagutzen ditut pastillok, neure neureak. Ez dut bata bestearekin nahasten, ez dut lasaigarria hartu beharrean depresioaren aurkakoa hartzen, ez horixe. Ez ditut nahasten, ezagutu ezagutzen ditudalako, sarritan hartu ere hartzen ez ditudalako, esan beharko diot hau guztia medikuari, ala esan diot, ez dakit.

Ez ditut tratamendu bateko eta besteko pastillak nahasten. Trebea naiz horretan. Nire seme-alabak, ostera, pastillak eta pastillekin batera bazterrak nahasten hasiko ete naizen beldur dira. Maite-maite naute, haien erara. Baina beldur dira. Urduri daude. Eta nabaritzen diet. Sentimenduok bultzatuta opari eder bat egin nahi izan zidaten nire azken urtebetetzean. Opari-paper distiratsuan batuta zetorren oparia, lazo eta guzti. Kaxa karratu baten itxura zeukan. Eskuetan hartu eta airean eutsi nion zer ete zen asmatu guran. Pisu arinekoa zen. Zabaldu eta kaxa karratu bat ematen zuena kaxa karratua zen. Zer eta pastilla-kaxa bat. Pastilla-kaxa bat, nire urtebetetzean, opari. Hori ikusi eta, karratua ez, baizik eta kaxa angeluzuzen bat etorri zitzaidan akordura.

Begiratu egin zidan. Maitek, gure auzokoak, hiru pisu gorago bizi denak. Bai, neuri begiratu zidan eta haren begirada nire begietan iltzatuta gelditu zitzaidan. Zerbait eskatuko bailidan begiratu zidan, horixe iritzi nion hasiera baten, zerbait eskatzen duenaren begirada iritzi nion harenari. Hain azkar pasatu zen Maite nire aurretik, hain arina izan zen bere begirada, ez nuela astirik ere izan erantzunik emateko, Maite erantzunaren zain zegoen ere jakiteko ez nuen denborarik izan.

Etxeko balkoian nengoen, siku samar zeuden loreei ura egiten. Behegaineko loreontzikoei ura egin eta gero, kanporantz eskegita zeudenei ekiteko nintzela, neu ere kanpora begira, orduantxe ikusi nuen Maite nire aurretik pasatzen, azkar eta arin, ziztu bizian pasatzen, jausten, goragoko pisuren batetik jausten, erorketa askean, hantxe, nire begien aurrean, aske, hantxe.

Nire begiek orain paisaia errea dakusate. Alanbrea lakoxe zuhaixka makur eta bihurriak, goiko ertzetan argiontzi txikitxoak dituztelarik, ixetu eta amatatu, ixetu eta amatatu; eta ia errotik kiskalitako arbola motzondoak.

JABIER KALZAKORTA

XVIII. mendeko Gipuzkoako amodiozko olerki bat: *Itsasora irten naiz*

Sebas Gartzia adiskide zintzo eta jakitunari

Sarrera

Lan honetan XVIII. mendeko amodiozko euskal poema baten berri eman nahi dugu. Poema horri "Itsasora irten naiz" izenburua jarri diogu, lehen esaldia izateaz batera poemaren mamiaren berri ere ematen duelako. "Itsasora irten naiz" inon argitaraturik ikusi ez dugunez gero, argitaragabea dela uste dugu. Gure olerkiaren iturria Jose Ariztimuño "Aitzol" zenaren funts edo hondoa dugu[1]. Gure olerkiaren eskuidatzia, beraz, Aitzolen aginduz gerra aurrean bildu ziren materialen artean aurkitzen da. Uste izatekoa da kantu biltzaileren batek bidali ziola poema inolako zehaztasunik gabe. Kantu biltzaile horrek nonbaiten aurkitu zuen bi plamatan transkribatutako olerkia bidali zion, beraz, Aitzoli.

Nahiz eta herri kanten bilduma batean egon, ez dugu uste, inondik inora ere, "Itsasora irten naiz" ahozko herri kanta bat denik. Idazle landuaren ukitua du alderdi guztietatik. Ahozko amodiozko kantuek ahozko baliapide eta ezaugarri nabariak izan ohi dituzte. Gure poemak, ordea, testu idatziaren ezaugarriak ditu bete-betean. Gure poemak balio poetiko nabarietatik aparte baditu betegarriak diruditen errepikak, ideia bat edo beste bortxatu xamarra…

Gure amodiozko poemak balio literario eta linguistiko garbiak ditu, dudarik gabe. Ez dago esan beharrik, bestalde, XVIII. mendeko euskarazko poema gutxi ezagutzen ditugula. Guk lan honetan transkribatuko duguna amodiozkoa da eta urruntze edo despedida baten berri ematen du. "Itsasora irten naiz" poemaren egilea nor den ez dakigu, ez baita sinadurarik agertzen transkipzioaren ondoren eta ez baitakigu noren jatorrizko hondotik eta funtsetik hartu zuen Aitzolek.

Lehen transkripzioa

Puntu honetara poema dagoen-dagoenean ekarriko dugu. Poema bi plamatan transkribaturik dago. Lehen plaman lehen hamar ahapaldiak daude, eta bigarren plaman azken biak. Plama bakoitzak bi zutabe ditu. Lehen bost ahapaldiak, beraz, lehen zutabean daude eta azken biak bigarren plamako zutabe banatan. Transkribatzaileari lehen plamako bigarren zutabean ez zaio hitza zenbaitetan sartzen, eta, modu horretara, ez du bertso-lerroa errespetatzen. Zazpigarren eta bederatzigarren ahapaldietan, esaterako, argi baino argiago ikusten da. Transkribatzaileak honela transkribatu beharko luke zazpigarren ahapaldia:

Ezta munduan
ezta nerezat gustoric
baldin vici viar batet
Uruti zugandic

Horrela egin beharko luke, baina lekurik ezean beste era honetara egiten du:

Ezta munduan
ezta nerezatgusto
ricbaldin Vici Viar batet
Uruti Zugandic

Gure puntu honetan ortografia ez ezik, letra xehe eta larria ere dagoen-dagoenean jarriko dugu. Transkribatzaileak hitzak zein aditzaren osagaiak batera idazten dituenean ere berdin jokatuko dugu, v. g. *irtenaiz*, *ichidet* eta abar transkribatuz.

I
Ichasora irtenaiz
onen onen nian
nere bioz gaizua
Ichidet Lurian

II
Ez naiz ni juan ez naiz
Zugandic uruti
borondatian ezda
Culparic ecusi

III
nere Suerte charrac
quendunai Zugandic
echaitu zu quenduco
nere Viocetic

IV
penaric andiena
da mundu onetan
acqueneco laztana
arceco deboran

V
Estu cenda bioza
ytca faltacenda
ecin atera Requin
barendic Campora

VI
Beguietan atea
baldin ezpaluce
Sarri bioz gasua
puscatuco luque

VII
Ezta munduan
ezta nerezatgusto
ricbaldin Vici Viar batet
Uruti Zugandic

VIII
Egunaz esnaturic
gabac amesetan
beti beti ustedet
Zadela aldian

IX
Ay noiz yzangooteda
Egun mayteura
non milla laztan
equinestutuco geran

X
Baldin alagazenba
da onelaco Eguna
yzango dezu
arequin betico laguna

XI
Eztu aldeguingo
ynoiz Zuregandic
ezpazayo alegazen
anin biar gogoric

XII

Ezteoala Jangoicoa
ala nay yzandu
gure biozac negarec
eztican urtan galdu

Ahapaldiz ahapaldikako iruzkina

Poema honek baditu hainbat alderdi iruzkingai. Literaturaren aldetik zein hizkuntzaren aldetik zein transkripzioaren aldetik hainbat kontu iruzkindu litezke. Atal honetan gure iritzian alderdirik interesgarrienak direnak iruzkinduko ditugu.

I

Ichasora irtenaiz
onen onen nian
nere bioz gaizua
Ichidet Lurian

Lehen ahapaldi hau dugu indartsuenetakoa. Itsasora doana *onen onenean* doa. Zer esan nahi du *onen onenean* esapideak? Gaur eguneko euskaran "gutxien ustean" esan nahi du, batez ere. Gure ahapaldian dilogia batez uler dezakegu. Norbait itsasora doa ustekabean eta amodio bete-betean edo *onen onenean* dagoela. Maitalea itsasora joan arren maitalearen bihotza pertsona maitatuarekin gelditzen delako ideiak balio poetiko nabarmena du. *Itsasoan* hitza erabiltzen badu poetak, kontraposizioz dagokion hitza *lehorrean* da. Hala ere, silaba kopurua dela eta *lur[r]ian* aurkitzen dugu.

II

Ez naiz ni juan ez naiz
Zugandic uruti
borondatian ez da
Culparic ecusi

Maiteagandik urruti badoa ere ez da bere borondatez, halabeharrez baizik. Horrexegatik dio *borondatian ez da/ culparic ecusi*. Aditzaren denborari gagozkiola, badirudi *ez naiz ni joango zugandik urruti* ulertu beharko genukeela. Ahapaldi honetan, bestalde, gogortxo egiten zaigu lehen *ez naiz ni juan ez naiz/ zugandik uruti* horretako sintaxia.

Aurreko ahapaldian bezala *ur[r]uti* eta *lur[r]ian* irakurri beharko genuke.

III

nere Suerte charrac
quendu nai Zugandic
Echaitu zu quenduco
nere Viocetic

Lehen ahapaldiko antzerako ideiak aurkitzen dira honetan ere. Ahapaldi honetan zein seigarrenean poetak *bihotza* hitzaren inguruan bilbatuko du amodioaren handia. Maitaleak, suerte txarrak eraginda urrunduko den arren, ez du bere maitea kenduko bihotzetik. Suerte txarra da subjetua esaldi bietan. Honela ulertuko genuke esaldia: suerte txarrak ni zugandik kendu banau ere, (suerte txarrak) ez zaitu zu kenduko neure bihotzetik.

Hizkuntzari gagozkiola, harrigarri egiten zaigu *nai* adizkia. Uste dugu *nau* dela aurkitu beharko genukeena.

IV

penaric andiena
da mundu onetan
acqueneco laztana
arceco deboran

Ahapaldi honetako mezua argia da: elkarrengandik despeditzean azken laztanak eman ohi du penarik handiena. Amodiozko euskal kanta zenbaitetan bezala, azken laztana bihotz-erdiragarria da, barrua

hausten du bete-betean. Motibo hau argi ikusten da ahozko zein idatzizko literaturan. Herri kanta bi aipatzekotan, besteak beste direla, "Ene maitea barda non zinen" edo "Ortziraletan duzu Garruzen merkatu" kantuak aipatuko nituzke.

V

Estu cenda bioza
ytca faltacenda
ecin atera Requin
barendic Campora

Despedidaren klimax delakoa azken laztana da. Azken laztanak indar handia du, bihotza estutzen du eta hitza faltatzen da, ezin aterarik barrendik kanpora. Amodioa sentimendu unibertsala denez gero, aldi eta alde guztietakoa, amodioaren bideak eta gertaerak ere unibertsalak izan ohi dira. Amodio handia dutenengan gertatu da, gertatzen da eta gertatuko da ahapaldi honetan adierazten den despedidaren gogorra.

Poema honetan *bihotz* hitza lehen, hirugarren, bosgarren eta seigarren eta hamabigarren ahapaldietan aurkitzen dugu. Bihotza dugu hitzik errepikatuena. Bihotzean gauzatzen da amodioaren poza eta mina, atsegina eta atsekabea.

VI

Beguietan atea
baldin ezpaluce
Sarri bioz gasua
puscatuco luque

Ahapaldi honetan zeintzuk dira subjetuak? Hona ulerbide bat edo beste. (Amodioak edo bihotzak) begietan atea ez balu(ke), (amodioak) sarri bihotz gaisoa puskatuko luke. Bestela esan: begiak bihotzeko indarra eta lehertu beharra ibitzen du, biguintzen du. Begiak daudelako ez da bihotza lehertzen, begietan du bihotzak aterabidea. Aterabideetako bat, jakina, negarra da. Ideia aldetik, gure ustez, badu bere balioa ahapaldi honek.

Lehen ahapaldian *gaizua* dator eta oraingo honetan *gasua*. Berdin ahoskatuko luke transkribatzaileak edo oraingo honetakoa bustidurarekin eta aurrekoa gabe?

Neurriari gagozkiola, baldintza-ondorioak ez ote dira poto? Ez ote dira *ezpaluke/luke* baldintza-ondorioak poto?

VII

Ezta munduan
ezta nerezat gusto
ric baldin Vici Viar batet
Uruti Zugandic

Ahapaldi hau besteak baino ahulxeagoa dela deritzagu. Bigarren ahapaldian ere *zugandic uruti* aurkitzen genuen, oraingoan *uruti zugandic* ordena aldaturik. Bietan, ordea, berdin idatzia dator *urruti* hitza: ur[r]uti. Uste dugu ahapaldi honetako *baldin vici biar batet* esaldia *baldin bizi bihar badet* irakurri beharko genukeela.

VIII

Egunaz esnaturic
gabac amesetan
beti beti ustedet
Zadela aldian

Amodioaren penek gau eta egun iraun ohi dute. Amodiozko poesiaren motiboetako bat dugu maitalea gauez zein egunez penetan izatea.

Hizkuntzari gagozkiola, *zadela aldian* horrek *zaudela aldean*, *ondoan* edo *alboan* adierazten du. Izan liteke, nola ez, *zarela aldean* ere. Nola irakurri beharko genuke, ordea, *egunaz esnaturik/ gabaz ametsetan* edo *egunaz esnaturik/ gabak ametsetan*? Logika eta

egitura paraleloak kontuan harturik, *egunaz/gabaz* behar luke. Guk, ordea, *in dubio pro reo* jokatu dugu eta *egunaz* eta *gabak* transkribatu ditugu.

IX

Ay noiz yzango ote da
Egun mayteura
non milla laztan
equin estutuco geran

Urruntzen den maitaleak berriro maitearekin elkartu nahi du. Urruntzeko laztana mingarria da, elkartu ondorengo laztanak bozkarioz gaindikakoak. Elkartzean maitaleak mila laztanekin pozez estutuko dira. *Estutu* aditza birritan ikusten dugu poema honetan. Bosgarren ahapaldian, despedidan, bihotza penaz estutzen da, oraingo honetan mila laztanekin estutuko dira bi maitaleak.

X

Baldin alagazenba
da onelaco Eguna
yzango dezu
arequin betico laguna

Orain arteko ahapaldi guztietan maitaleak lehen pertsonan hitz egiten du: *irten naiz, itxi det, ez naiz ni joan*, eta abar. Ahapaldi honetan urruntze bat dago eta *nirekin betiko laguna* esan beharrean *arekin betiko laguna* dio.

Lauko honetan *alagazen* hori "allegatzen" dela uste dugu. Hurrengo ahapaldian *alegazen* ikusten dugu, hots, "allegatzen".

XI

Eztu aldeguingo
ynoiz Zuregandic
ezpazayo alegazen
anin biar gogoric

Ahapaldi honetan ere, aurrekoan bezala, hirugarren pertsonan dator maitalea: *Ez du aldegingo/ inoiz zuregandik* (maitaleak).

Lauko honetan ezin izan dugu *anin biar gogorik* hori ulertu. Arazorik handiena *anin* horrek ematen du. Zer ote da?

XII

ecteoala Jangoicoa
ala nay yzandu
gure biozac negarec
eztican urtan galdu

Azken ahapaldi honetan gorapilo bat baino gehiago ditugu askatzeko. Lehen duda hauxe dugu *ecteoala* nola irakurri behar dugu? *Eztiola* edo *eztuela*? *Ez deoala* irakurtzen badugu, nola ulertu behar ote dugu? Guk, besterik ezinean, honela transkribatuko dugu *Ezteoala Jangoikoa[k]/ hala nai izandu*.

Nola ulertu behar da, bestalde, *gure biozac negarec eztican urtan galdu* hori? Zer da *eztican urtan* delakoa? Zerbait ulertzekotan, gure negarrek bihotzak "urtan" galtzen dituzte, hots, ur(e)tan edo malkotan galtzen dituzte. Baina nola ulertu behar da *eztican*? Ulerbide bat hauxe dugu: gure biotzak negarrek/–ak eztitzan urtan galdu. Ahapaldia, beraz, honelaxe ulertuko genuke 'Ez duela Jaungoikoak nahi gure bihotzak negarrak ur(e)tan gal(du) ditzan'.

Itsasora irten naiz gaurko grafia-ortografietan

Puntu honetan gaurko grafia-ortografietara ekarriko dugu olerkia. Ez dago dudarik problema bat baino gehiago sortzen duela gaurko grafia-ortografietara ekartzeak. Nola transkribatu, esaterako, *Ichasora*? Guk *Itsasora* egin dugu, baina *Itxasora* erabat baztertzekoa ote da? Nola transkribatu lehen

ahapaldiko *gaizua* eta seigarreneko *gasua*? Biak berdin? Fonetismoak bere horretan utziko ditugu. Era horretara, *onen onenian* jarri dugu eta ez "onen onenean", era berean, *gaisua* eta ez "gaizoa". Gaurko ortografian badiogu ere, eskuidatziko *bioz, andi* hitzak ez ditugu "bihotz", "handi" transkribatuko.

I

Itsasora irten naiz
onen onenian,
nere biotz gaisua
itxi det lur[r]ian.

II

Ez naiz ni juan ez naiz
zugandik urruti,
borondatian ez da
kulparik ekusi.

III

Nere suerte txarrak
kendu nai zugandik,
etzaitu zu kenduko
nere biotzetik.

IV

Penarik andiena
da mundu onetan,
azkeneko laztana
artzeko de[n]boran.

V

Estutzen da biotza
itza faltatzen da,
ezin aterarekin
bar[r]endik kanpora.

VI

Begietan atea
baldin ezpaluke,
sarri biotz gasua
puskatuko luke.

VII

Ezta munduan ezta
neretzat gustorik,
baldin bizi biar badet
ur[r]uti zugandik.

VIII

Egunaz esnaturik
gabak ame(t)setan,
beti-beti uste det
zadela aldian.

IX

Ai noiz izango ote da
egun maite ura,
non milla laztanekin
estutuko geran.

X

Baldin allagatzen ba
da onelako eguna,
izango dezu arekin
betiko laguna.

XI

Eztu aldegingo
inoiz zuregandik,
ezpazaio allegatzen
anin biar gogorik.

XII

Ezteoala Jangoikoa[k]
ala nai izandu,
gure biotzak negar[r]ek
eztitzan urtan galdu.

Ychasoza irtenaiz
onen onen nian
nere bioz gaizua
Ychidet Lurian

Bequietan atea
baldin expaluce
saxri bioz gasua
pnscatuco lugue

Ez naiz ni Juan ez naiz
Zugandic uzuti
borondatian ezda
Culpazic ecusi

Ezta munduan
ezta nerezat gusto
xicbaldin Yici Yiarbate
Yuti Zugandic

nere Suerte chazzac
quendunai Zugandic
echaitu zu quenduco
nere Yiocetic

Egunaz esnatuzic
gabac amesetan
beti beti Ustedet
Zadela aldian

penazic andiena
da mundu onetan
acqueneco laztana
axceco deboztan

Aby noz yzangootedo
Egun maytezia
non milla laxtan
equinestutuco gezan

~~Estu cenda bioza~~

Estu cenda bioza
ytca faltacenda
ecin atera ne Reguin
berendic Camporal

Baldin alagazenba
da onelaco Eguna
yzango dezu
aregun beticolagun


Eztu aldegingo
ynoiz Zuregandic
ezpazayo allegacen
anin biar gogorik

Ezteoala Gangoycoa
ala nay yzandu
gure biozac negarrec
eztican yrtan galdu

Hona, beraz, gure transkripzioa. Antonio Zavalak egindako eskuidatziaren argazki batean oinarritu gara geure lantxoa egiteko. A. Zavalak berak XVIII. mendea jartzen duen karpeta batean bere transkripzioa egiten du, inolako zehaztasunik jartzen ez duela. Hona A. Zavalaren transkripzioa.

Itxasora irten naiz
onen onenian
nere biotz gaizua
itxi det lurrian.

Ez naiz ni juan ez naiz
nigandik urruti,
borondatian ez da
kulparik ikusi.

Nere suerte txarrak
kendu nai zugandik
etxaitu zu kenduko
nere biotzetik.

Penarik andiena
da mundu onetan
azkeneko laztana
artzeko denboran.

Estutzen da biotza,
itza faltatzen da,
ezin aterarekin
barrendik kanpora.

Begietan atea
baldin ezpaluke
sarri biotz gasua
puskatuko luke.

Ezta munduan ezta
neretzat gustorik,
baldin bizi biar batet
urruti zugandik.

Egunaz esnaturik
gabak ametsetan
beti beti uste det
zadela aldian,

Ai noiz izango ote da
egun maite ura
non milla laztanekin
estutuko geran.

Baldin alagatzen bada
onelako eguna
izango dezu arekin
betiko laguna.

Eztu aldegingo
iñoiz zuregandik
ezpazayo allegatzen
anin biar gogorik.

Ezteoala Jangoikoa
ala nai izandu
gure biotzak negarrek
eztikan urtan galdu.

OHARRAK

[1] Aitzolen hondo edo funts galdukoa dugu poema hau. Funts galdua da jatorrizko dokumentuak aldenduak daudelako Koldo Mitxelena Kulturuneko artxibotik. A. Zavalaren argazkiak funts galdu osoari egindakoak direnez gero, argazki bidezko testigantza dugu hau. "Itxasora irten naiz" poema Antonio Zavalaren bi argazkitan dago, 440 eta 441 zenbakietan.

Plazera da

Etxeko zapatilak ate ondoan itxita, zerbait txiki baten ertz ugariek krak egin deutsie oin azpiko azalean, nahiz eta orpokoa nahiko lodia izan, tarterik ez deutsalako egiten katxoa kentzeari. Bost minutu baino ez, esan eutsan itxuraz ia ordubete bere burua apaintzen emoten dauen estetizistearen arpegi irribarretsuak. Irribarreak salatu egin eutsan buruan eukana: neska eta andren isilgordekoen jakitun naz, hareen gorputzeko ule guztien barri daukat, non zenbat ule eta noiz kentzen daben, euren gorputzean zer gorroto daben, inor edozein momentutan lotsatzeko moduko informazinoa daukat eta horrek jakintsu egiten nau. Nekea nagusitzen jako Liviari arpegi hain pintauak ikusten dauzanean, zenbat kotoi beharko leuke azalaren benetako kolorea ikusi arte. Hori be nekosoa egiten jako.

Madarikazinoa bota dau komunean, oso argi izan barik berantzat edo semearentzat, errudun sentidu da batera eta berehala. Bart salatik komunera arrastaka eroiala, Danel mainaka jostailuren baten piezak askatuz joian, akabukoa, orpoan untzetuta daukana. Garrasia iruntsi dau. Ezin garrasirik egin, ostera, goizeko sei eta erdietan. Atera ezin izan dauana sugar goria da barruan. Pijamea kendu dau dutxan sartzeko; ur beroa, baina, tutuetan dabil bidea egiten, txorrotara ailegau barik. Berogailua Livia baino geroago hasten da, 7retan. Orpoan mina, azala hotz, kanpoan ura, euria baino gehiago, eta burua borborka, daborduko. Danel intzirika entzun dau, Imanolek entzungo eutsan? Bat ezin da ezta trankil dutxau be.

Bainuetxeko ur bero gozotik Siberiara segundo bakarrean, hori da hori pagotxa! Tostadak, kafea, esnea, zuku barik, minutu bi gehiegi da, segundoak neurtuta badau-

kazuz. Slow mugimendukoak armozau ostean hasiko dira slow izaten.

Intziriak negar antzekoak dira orain. Ulea lehortu barik, koartoan umea nasaitzeko Imanolen gaitasun eza topau dau. Aspaldion ikusi barik daukaz Imanolen gaitasunak. Zelan izan leiteke gizon bat hain ezgauza ume txiki bategaz. Titian jarri dau, tira egin deutso ai, ia min egin arte. Lepoko eta arpegiko giharrak estututa; beste aldean, Imanolen bizkarra edredoipean gozo-gozo.

Bihotzak gora egin ahal izan dau Danel zup-zup egiten ikustean, kaltzaidua apur bat urtu jakonean. Aurrean daukan horma zurian bere ama eta amaginarreba ikusi dauz, txarto hazten dabilela horrenbeste titi emonda, mainatsua izango dala, badala daborduko. Gero, Imanolek hartu dau beste bien lekua, eta bizar uletsutik dinotso 39 urte daukazala eta belu dabilela haurdun geratzeko, eta titia behingoz kentzeko Daneli. Liviak ahaztuta dauka noiz zurrupatu eutsazan titiak Imanolek, horretarako gogorik noiz izan dauan be ahaztuta dauka. Ez badozu narrutan egin gura, ez esan buruko mina daukazula, ume batez erditu eta buruko minak irauten dauen denporea baino luzaroago izango dozu urrun zure bikotekidea.

Ba ete egoan beste bizimodurik honen aurretik?

Etxe honetako jaun eta jaube bakarra, kuman, lo-lo. Erre usaina sutetik. matrailazurra gogortuta, hotzitutako fraka jarri barriek eragindako ia minegaz, atzamarrak ia txigortu jakoz karmelitatik tostadak kentzen. Danelek titi bat hutsitu deutso, bestea bete-beteta dauka, dinbilidanbala, narru gorritan garriz gora. Esnea aterateko makinaren ahoa titian jarri eta esnea isurteari ekin deutso, makinaren bihotz motordunak zarata ezin eztitsuagoaz lagunduta. Plazer hutsa. Titipunta zorroztu egiten da makinak zurrupatu ahala, arkatza baten antzean, eta han doa errapearen likido zuria.

Titiak txiki-txiki eginda, sosten zurian sartu eta titiak eskegita geratu jakoz tripan, inoiz sostenik erabili ez baleu lez, titizorroaren eskegitekoa kenduta dago-eta. Daborduko nekatuta dago Livia, zazpirak eta hogei baino ez dira. Indar guztia esneagaz batera joan jako. Faltan daukaz bere titi gazteak. Gorputza ezezaguna jako, garri aldea globo putzitu baten antzean, airez barik maminez ondo beteta, eta gainerakoa, mehe-mehe eginda, udagoieneko adar orri bako baten antzera. Eskastuta.

Bulegora sartu orduko buruan ahotsak daukaz, mamuenak. Ozen egiten deutso berba batek, ama guztien mamuak, gozoago jokatu ez daualako Danelegaz. Iretargia ikutu gura izatea lez. Hobeto, gozoago, luzaroago, indar handiagoaz entzun, ikusi, begiratu, laztandu beharko leuke. Orain ezin. Beste batetik tiraka dabil beste mamu bat, deiadarka, laneko gaurko egin beharrekoez ondo horniduta.

Imanolen watsapa, ea non dagozan galtzetinak. Grrrrrrr. Matrailazurrak gogortuta: *inutile!* Ze ez dagoz betiko lekuan, bigarren tiradorraren eskumako aldean, ez handik iges egin dabe, antza; Imanolen begiak dira horren lekuko. Handik 65 segundora: non dagoz Danelen botak? Ez eutsazan, ba, berak kendu atzo? Laneko posta elektronikoei ekin, eta hirugarrena,

bere galtzetinak ea non? Baietz etxetik urten baino lehenago watsapa bialdu, txupetea, jakea, bufandea, dana dalakoa, badauka non aukeratu.

Nagusiak urteteko ordua baino ordu erdi lehenago batzarra jarri deutso. Bere bi urteko bikiak jagoteko emaztea dauka antza 24 ordu, eta lanean geratu daiteke gura beste. Liviak gustura jardungo leuke bere emazteagaz, baietz bien artean ondo baino hobeto narrutu. Livia baino gazteagoa da nagusia, kolegioetan ikasi eta harremanak Liviarenak baino beste maila baten lantzen dauzana, gorago, ondo baino hobeto adierazoten deutsanez, ez zehatz-mehatz berbakaz. "Mundua zelan mobidu ondo dakit" dauka tatuauta bere kopetako frontoian, ule urriak alfonbrako parpaila gastauen antzean gainean dauzala.

Batzarrak ordua bete dau, azken berrogeta bost minutuak kentzeko modukoak izan badira be. Nagusiak, baina, publikoa behar dau. Etxean ez deutsie gura beste entzuten, beharbada. Horri buruz be egingo eban berba haren andreagaz.

Atetik amaren begi-zuloak sartu orduko, titi eskean etorri jako. Jakea kendu barik, kili-kili gozoakaz zurrupatu deutso titi-puntea. Danelegaz orain bakar-bakarrik, beteta eta pozik.

Sutean Imanol dauka, itxaroten, antza; leihoan zigarroa erreten. Gorroto dau, esan deutso, baina ez, Imanolek etxean bardinbardin keari eusten deutso; gura izango dau hautsontzi-mihinari bueltaren bat ahoan emotea, ze artean ez da egon ezpanmosurik. Liviaren begiradak gorriak dinotsazala-eta, abagunea hartu dau Imanolek, indartsu. Goizean, Danelek armozua, bazkaria haur-eskolan, eta meriendea, dana eta ondo jan dauela. Holan, Livi, holan ezin izango zara barriz ernaldu. Medikuak esan euskun, interneten be besterik ez dago; zure adinagaz, ez ahaztu ia berrogei daukazuzala, ezin zara ernaldu titia kentzen ez badeutsazu. Zer edo zer egin beharko dozu, Livi.

Erru osoaz eta guztiaz betetako upela bota deutso, hotz, titiak holan hotzitu eta hutsitu ahal izango baleuz lez. Liviak ezin dau torlojua sartu Imanolen buruan. Berak ezin dauala, Danel egun osoan ikusi barik egon ostean eskatu eta ezin deutsala ezetz esan.

Itzalean itxi dau bestea. Gauaz Danel izartu eta ahalik eta arinen mesedez umea isildu, eta titia emon edo zer edo zer egiteko esaten deutsanean Imanolek. Negarrez egunaren barruan egiten badau, begiz gauza bera eskatzen deutsanean.

Sua irakiten dauka barruan. Livi esan deutso, txingarrak astintzen dabilela jakin barik.

Danelen aurka be bai, ezin ukatu. Semearen kontra be egiten dau inoiz. Ama ez dagoanean, titia ez da existiduten, baina esne-sumendiak ikusi eta jatekorik ez dau gura inondik inora. Esne-laba hori baino ez, Liviak beste ezer emon ezin izango baleutso lez. Horra, esne-ontzi hanka bikoa.

Gaueko txandara joan da Imanol, haserrealdia beragaz guztiz eroan barik.

Zurrupatzaileak ez dau gura lo egin, hara-hona dabil, afaldu barik baina indartsu hiru biderrez esnea edan ostean. Bainuak be ez dau nasaitu. Danetarik probau dau hamabietan loak hartu baino lehen: haserratu, mosuak, beragaz olgau, bere erara itxi... Azkenean, txiripaz, loak hartu dau. Lepoa

gogor-gogor, ezin dau gora adi dagoala Daneli begiratu. Holan joan jako beste ordubete loak hartu baino lehen. Hileko mina be badauka, sabel putzitu aldean. Hiru hilebete narrutan egin barik. Holan bai, holan bai ernaldu.

Izartu da Danel, handik ordu bira, Danel loak hartu eta ordu bira.

JESUS ANTONIO ETXEZARRAGA

Arbiter bibendi



Kratera ahozabala eskuetan, edarien arbitro nonzeberri apalak afaltiar bakoitzari dagokion duintasunez isuri ditu edalontzietan ura eta ardoa.

Han atakan ikusi du hara non datorkion nomenklator orojakile nonzujesarri harroa, begiradaz bakarrik ere, handikien makulu eta gutxituen ezten dena.

Enperadorea baino beti pausu erdi atzerago, haren keinu bati men eginaz, gonbidatuen izenak xurxulatu ohi dizkio belarrondora samur.

Oroimen zorrotza urteen joanak kamusturik, esaleak ezin du orain izen eta aurpegien kordamusa ondo garandu, ezin bat-batean gaitzizenen lokia askatu.

Eta, esandakoa lege eginaz, enperadoreak edo haren nomenklatorrak dioen izen horixe gorde behar da. Esaneko hiritarrek izen bana edo familia goitizen bina dute afalondorako sarri.

Badakite zein izen edo goitizen duten afalaurreko jan zaharrean, ez ordea zeinekin etxeratuko diren afalostean.

Bart, ez antza jainkoen harridurarako, edarien arbitroak anfora baten barruan aurkitu du buru txarreko nomenklator laxoa ardo-asez itota.

Harrezkero, jarro eta bazinak utzi eta ardoketaria bera egin da izen emaile, eta ok eginda filosofatzen diharduten afaltiarrek ez dute afalondoan izen berriaren ardurarik hartu behar.

Hondakinetan asaskaturik ok eginda dauden afaltiarrek ulertzen ez dituzten hizkuntzetako poemak entzuten dituzte. Gaurko olgetaldirako eztabaida gramatiko bati dagokiola erabaki du enperadoreak. Hain da bera horren eskuzabala.

Lorak, lurruna, libazioak eta kaliza beteak etzan-leku trauskilduetan. Zelan gura du berorrek ardoa? Epelago, urtsuago ala mikatzago?

Nefertitiren agurra

Baleki inork zer darabilen Nefertitiren gogoak gorteko kronikagileek hilobirako zizelkatu dizkioten inskripzio kuneiformeak irakurri dizkiotenean.

Entzun egiten du, azalpenak oldoztu, eta ormetako harrietan erretenak zulatuz joka ari diren eztenei begira dago isil.

Izkiriatzaileek ez dakite irakurtzen eta horrek libratuko ditu heriotzatik. Hilobiaz haraindiko bidaian izango duen segizioa lagun hil-ganberako ilunpera sartu da.

Zain du hantxe eguzkiaren bidaia egiteko mihiztatu dioten gurdi urreztatua. Ez du argi abiatzeko egunerako piramide erdi jasoak gailurrik izango duenik ere.

Kanpo aldeko argitasun itsugarrira atera dira eta han aldamenean hareak eta haizeak lurrarekin berdindu duen hilobi zaharkindu baten gerizpea zeharkatzen duen itzulbidea hartu dute.

Ezinbestekoena

Katafalko gorenen aurrean garandu zituzten epizedioen hotsak ahaztu egin dira, hurbilekoek haien oroimenez kantatu zituzten urruneko treno hunkigarriak mututu.

Hilerriko Ezinbestekoen pasealekuko hilarri astunetan idatzi zituzten epitafioak letra solte, irakurgaitz eta zentzunbakoetan ezereztu ditu afrontuak.

Oraindik deszifratu gabea ematen duen hizkuntza batean idatzitako lerroei begira zurtz eginda dabilen oroimenak goroldio mutuaren babesa eskatu du aspaldi.



ENEKO URIZAR

Poemak



Gogoeta gehiago

I

Betiereko gauzak idaztera
kondenatuak daudenei
inbidia diet.

II

Argia galtzerakoan, indarge,
kemenaren balioak
zeruertzetik agurtu nauenean,
aurrera egiteko
zein garrantzitsua zaidan
konturatu naiz.

III

Idazteari utzi behar diot
ingurua antzeman
eta momentu isolatuak
integratu ahal izateko.

IV

Intimitateari begirada
intimista:
ezezagunakin bazkaltzerakoan
intimitatea postre moduan;
goizago batzuetan,
besteetan beranduago.
Ez bazatoz, ez diot berriro deituko.

V

Boskarrena. Zenbaki bat gehiago
dena zenbatu behar dut;
maitasuna ezik, heriotza ezik
hitz handiak zu bezain mugagabe.

Argirik ez

Pasiran irten ginen
biok bakarrik
ametsek eraikitako zubien
gainean berriz ibiltzeko
Magritteren zeruko hodeietan
argirik ez dugula behar
argi gelditu zen.

Hiriko kaleetatik parkera
eta parketik basora
gero eta urrutiago,
eta basotik hipodromo zaharrera;
zaldi berri batzuk daudela
ikusi nuen tristeziaz
metalezko makilokin
bola zuri txikiak
banderadun zuloetan sartu asmoz.

Ez nituen zaldi lasterketak
gustoko
belarra kolpatzen zuten haiek
ezta zuriz jantzitako gizonak ere
belarra kolpatzen dute hauek.

Gure ametsak
beti bezain distiratsu daude
argirik ez dugula behar
argi utziz.
Itzal ditzatela farolak beraz
presta ditzatela teilatu berriak
txori suizida berriontzat.

XABIER BOVEDA

Eako marinelaren iloba



Pedro Valentin Cortazar Mendiola, 1840an Ean jaiotako marinela, Argentinara joan zen XIX. mendearen azken laurdenean. Salta probintzian bizi izan zen.

Haren iloba Julio Cortazar 1914an jaio zen Bruselan, aitaita hil eta urte bira, baina, lau urte zituela, Argentinara joan zen gurasoekin. Maisu lanean jardun zuen hainbat eskolatan, eta frantziar literatura irakaslea izan zen Mendozako unibertsitatean. Peronen gobernuaren aurkako borrokan ibili zenez, uko egin behar izan zion bere irakasle-karguari. Ondorioz, Europara bueltatu zen, eta Unesco-rako itzultzaile lanean ibili zen. Bizitza osoan zehar konpromiso politikoa izan zuen giza eskubideen alde. Parisen hil zen 1984an.

Hegoamerikako *boom*-eko eta errealismo magikoko idazle handienetako bat dugu Cortazar. Haren lanean fantasia eta mundu magiko eta ezustekoak agertzen dira. Era surrealistan egiten du kanpoko munduaren erretratua: mamu-labirinto bat, zeinetik gizakiak ihes egin beharra duen (*Los reyes, Los premios*).

Cortazar ipuinengatik da ezaguna, batez ere. Ipuinetan hizkera kolokialaren baliabideak eta giro harrigarri artegagarriak erabiltzen ditu. Hizkeraren erritmoak ahozkotasunera eramaten gaitu etengabe, ipuinaren oinarrietara, beraz; eta irakurlea, sintaxi hautsia eta errealitate desegina gorabehera, harrapatuta geratzen da, kontatua benetakoa balitz bezala. Ipuin bilduma ezagunenak honako hauek dira: *Bestiario* (1951), *Armas secretas* (1959), *Todos los fuegos el fuego* (1966), *Octaedro* (1974), *Quremos tanto a Glenda* (1981). Bestalde, saiakera eta narrazioaren arteko lanak ere idatzi zituen: *Historia de cronopios y de famas* (1962), edo *La vuelta al día en ochenta mundos* (1967). Hala ere, haren lanik handiena *Rayuela* (1963) eleberria da. Liburuak irakurtzeko era bi eskaintzen ditu: ohiko ordena duena, eta atal batetik bestera jauzika doana, hasierako planoak azaltzen duenaren arabera. Paris eta Buenos Aires, jazza eta matea nahasten dira bidaia kaleidoskopiko batean, rayuelako *zerua* iris-

teko asmotan. *El libro de Manuel* (1973) eleberria ere idatzi zuen, eta bertan, pastitxe erara idatzita, Hegoamerikako egoera politikoa da gai nagusia. Hain ezaguna ez bada ere, poesia ere idatzi zuen: *Presencia* (1938), *Pameos y meopas* (1971), eta hilondoan argitaratu zen *Salvo el crepúsculo* (1985). Poesian nabarmena da surrealismoaren eragina.

Orri hauetan euskal jatorria duen idazle argentinar handia gogoratu nahi dugu haren jaiotzaren mendeurrenean (1914-2014). Horretarako haren testu batzuk ekarri ditugu euskarara.

Tantak zanpa eta zanpa

Ez dakit nik ba, hara: itzela da nola jausten den euria. Euria atertu barik jausten da, kanpoan zarrazarra eta urdin; hemen balkoiaren kontra tantakada mardo potoloak, *plaf* egin eta zanpatzen direnak bata bestearen atzeko zaplastadak bezala, ze gogaikarria. Orain leihoaren marko gain-gainean ttantta bat agiri da; dar-dar batean geratzen da milaka dirdir lausotan zafratzen duen zeruaren kontra, hazi egiten da eta kulunkan hasi gero, jausteko dago iaia eta ez da jausi, oraindino ez da jausi.

Apatx guztiekin dago oratuta, ez du jausi gura eta ikusten da haginekin ere helduta dagoela, eta bitartean puztu egiten zaio tripotxa; orain tantatzar bat da dotore dingilizka, eta halako batean, *zup,* badoa, *plaf*, birrinduta, hutsaren hurrengo, haitzurdinaren gaineko likin hutsa.

Baina beste batzuk berehala errenditu eta suizidatu egiten dira, markoan sortu eta bertan behera amiltzen dira; irudikatzen dut jauziaren dardara, haien hankatxoak nola askatzen diren, eta irudikatzen dut jaustearen eta birrintzearen hustasunean mozkortzen dituen txilioa.

Tanta gaixoak, tanta inuzente biribilak. Adio, tantak. Adio.

Azken bost poema Crisentzat

I

Orain txoriak idazten ditut
ez ditut etortzen ikusten, ez ditut aukeratzen
bat-batean hor dira, hauxe dira:
berba saldo bat
banan-banan orrialde baten harietan
pausatzen direnak
kirrinka, mokoka, hegal-euria legez,
eta ni emateko ogi-papur barik, soilik
etortzen utziz. Izan liteke hori
zuhaitz bat edo izan liteke
maitasuna.

II

Bart Sekhmet jainkosa lehoiburuaren
apaizeme amestu zintudan.
Hura, porfido biluzia,
zu, larru urdin biluzia.

Zer eskaintza opa zenion
zure begiradaren bidez
zerumuga azkengabe eta gordina
zekusan jainkozko basatiari?
Zure eskuen ontziak zure ezkutuko
libazioa zeukan, negar-anpuluak
edo zure hilekoaren odola, edo zure listua.

Edonola ere ez zen hazia
eta nire ametsak bazekien
eskaintza ukatua izango zela
erdeinuzko orro batez
betidanik igurikia zenuen bezalaxe.

Gero, agian, jadanik ez dakit,
atzaparrak zure sabelean, gainezka.

III

Sekula ez dut jakingo zergatik
sartu zen zure mihia nire ahoan
zure hotelean agur esan genionean elkarri

hirian zehar amultsuki ibili eta
distantziak doi neurtu ondoren.

Une batez pentsatu nuen
geroko hitzordu bat
ematen ari zinela,
bi mugen arteko lurra irekitzen zenbiltzala,
zure goroldio xehea erdiesteko
interregno bat.

Neskalagunez inguraturik musu eman zenidan,
ni, ezohikoa, munstroa,
eta zu, urratzaile marmartia.

Batek daki nori eman zenion musu,
nori esan zenion agur.
Lipar huts bateko ordezkari zoriontsua izan nintzen,
batzuetan bere listuan atxapar gustu poxi bat
antzematen duena hego-zeru pean.

IV

Gau honetan Tiresias izan gura nuke
eta ahuspez itxaronaldi astitsuan
zuri harrera egin eta zure zartailu
eta zure medusa epelen pean intziri egin.

Jakinik metamorfosi errepikariaren ordua dela,
eta bitsen zirimolara beheratzean
irekiko zinatekeela negarrez
paldoan gozoro sarturik.

Eta ondoren itzuli
zure falangeen erresuma premiatsura,
azalaren hesira, zure hatzak heze,
elkarrekin narrasean eta besarkaturik
ametsaren hondarretara biok iritsi arte.

Baina ez naiz Tiresias,
adarbakoitz soila baino, zeinak
zure eskuetako ura bilatu
eta ezpainen artean ahurtara bat gatz
kausitzen duen.

V

Ez zaitut poema gehiagorekin gogaituko.
Demagun esan dizudala
hodeiak, artaziak, upeltxoak, lapitzak,
eta agian noiz edo noiz
irribarre egin duzula.

Negar egiteko jarraibideak

Negarbideak alde batera utzita, kasu egin diezaiogun negar egiteko era xuxenari, esan nahi baita zalapartarik eragiten ez duena, eta irribarrea –bere antz paralelo eta baldarrarekin–, iraintzen ez duena. Batez besteko negar arrunta honetan datza: begitartearen uzkurdura orokorra eta espasmozko hots malko eta mukiz lagundua, azken horiek amaieran, zeren negarra norberak errime zintz egitean finitzen baita. Negar egiteko, zuzen ezazu irudipena zeure baitara, eta hori, kanpoko munduan sinesteko ohitura hartzeagatik, ezinezkoa baduzu, pentsa ezazu xinaurriz estalitako ahate batean edo Magallaneseko itsasarteko lurmutur horietan, zeinetan ez baita inor inoiz sartzen. Negarra helduta, estal ezazu begitartea itxura onez esku biak ahurra barrurantz erabiliz. Umeek negar egin dezatela jakaren mahuka aurpegiaren kontra, eta, hobeto, gelako bazter batean. Negarraren batez besteko iraupena: hiru minutu.

Etorkizuna

Eta ondotxo dakit ez zarela izango.
Ez zara izango kalean, gauean argi-zutoinetan
sortzen den murmurrean, ez menua hautatzeko
keinuan, ez mukuru betetako metroak arintzen dituen
irribarrean, ez mailegatutako liburuetan, ez *bihar arte*-an.

Ez zara nire ametsetan izango,
nire hitzen jatorrizko helburuan,
ez telefono zenbaki batean,

edo eskularruen edo atorra baten kolorean.
Haserretuko naiz, ene maitea, zuregatik izan barik,
eta bonboiak erosiko ditut, baina ez zuretzat.
Geratuko naiz kantoian, zeinera ez zaren etorriko,
eta esaten diren hitzak esango ditut,
eta amesten diren ametsak amestuko ditut,
eta ondotxo dakit ez zarela izango,
ez hemen barruan, artean atxikita zaitudan espetxean,
ez han kanpoan, kale eta zubien erreka honetan.
Ez zara ezertarako izango, ez zara oroitzapena ere izango,
eta zugan pentsatzen dudanean gogoeta bat pentsatuko dut,
zeina zutaz oroitzen saiatuko den ilunkiro.

Festa ostean

Eta mundu guztiak alde egin
eta edalontzi hutsen eta hautsontzi zikinen artean
bakarrik geratzen ginenean gu biok

zer ederra zen jakitea hantxe zeundela zu
urlo baten antzo,
nirekin bakarrik gauaren ertzean,
eta iraun egiten zenuela, denbora baino gehiago zinela,

alde egiten ez zuena zinen zu
zeren burko berak
eta epeltasun berberak
iratzarriko gintuen
egunsenti berrian,
elkarrekin, barreka, ileak laskituta.

Polikroniak

Harrigarria da pentsatzea duela hamabi urte
zer eta berrogeita hamar bete nituela.

Nola nintekeen hain zaharra
duela hamabi urte?

Laster hamahiru izango dira
berrogeita hamar bete nituen egunetik. Ezinezkoa ematen du.
Zerua gero eta urdin eta urdinagoa da,
eta zu politagoa eta politagoa.
Ez al dira horiek erlojuak txarto dabiltzala
erakusten duten frogak?
Tabakoa eta whiskia nire gelan
paseatzen dira, atsegin dute
nirekin egotea. Hala ere,
harrigarria da pentsatzea duela hamabi urte
bi bider hogeita bost bete nituela.
Zure eskua nire ilean barrena dabilenean
badakit zer duen bilatzen; ile urdinak, lausokiro
harrituta. Hamar-hamabi daude,
saria izango duzu aurkituz gero.
Hasiko naiz zahartzaroan huts egindako
klasiko guztiak irakurtzen. Bizkor ibili behar da,
hori ez dizute goitik ekarriko, gutxi falta da
hamahiru urte betetzeko
berrogeita hamar bete nituenez geroztik.
Hamalaurekin uste dut
beldur izango naizela,
hamalaua batere gustatzen
ez zaidan zifra da,
egia esan behar badizut.

SEBASTIAN GARTZIA TRUJILLO

Zauden lekua lur santua da (Ir 3, 5)

(Joxan Artzeren olerkigintzara hurbilketa)

Olerkariak

Olerkariak, artistak oro har: pintoreak, musikariak… ezinbesteko ditugu hiri deslilluratuan. Horregatik haiengana jo behar dugu, mediku zein psikologoengana jotzen dugun antzera, edota, noizbait bederen, psikiatrengana ere bai.

XX. mendean Europako buru argienetakoa izandako M. Heiddeger-ek ohartarazi zigun olerkariek, teknika- eta metafisika-begiratuez haratago, giza transzendentziarantz[1], hots, giza dimentsiorik onenera-edo, eramaten gaituztela[2].

Bai, ezinbesteko ditugu olerkariak, hiri aspertuan edertasunaren (g)uneak markatzen dizkigutelako; hiri azeleratuan parke lasaiak erakusten dizkigutelako; gai eztabaidatsuetan tonu lagunkoia erabiltzen irakasten digutelako; bide galduetan noranzko seinaleak pizten dizkigutelako...

Olerkari guztiek, haatik, ez dizkigute gustu bertsuak erakusten; artista guztiek ez dituzte leku ezkutu berdinak ezagutzen; soinulari guztiek ez dute soinu-tresna berbera jotzen. Baten batzuek amodio hitzak erakusten –berriztatzen– dizkigute; besteren batzuek izadi-koloreetan jakitunak dira; gutxi batzuek zoko ilunak argitzen dizkigute; hauek erritmoak azaltzen dizkigute; horiek txorien kantak, haiek, hiriko (herriko) biztanleen arteko pertsona harrigarriak.

Hori dela eta, komenigarria zaigu jakitea olerkari guztiak zertan ditugun espezialista.

Joxan Artze[3]

Ikuspegi orokorra

Joxan Artze olerkaria, hainbat trebeziaren artean, errealitateari buruzko ikuspegi zabal eta integratzailean espezialista dugu: *Gizon haundia da mundua eta mundu txikia gizona* (1998). Joxanek badaki gizakia misterio dugula, baita zer esanik ez, Jainkoa ere, biak ala biak esanezinak. Hala eta guztiz, Joxan izadi, gizaki eta Jainkoaren sakontasun-zabaltasun esanezin hori esan eta azaltzen saiatzen zaigu, behin eta berriz, alde batetik zein bestetik, esku dituen gailu guztiak erabiliz: argia, maskarak, koloreak, txalaparta… Ikuspegi orokor eta integratzaile horretan Joxanek ez du ezer bazterrean uzten, txikia den arren, txori baten hego hauskorra, kasu: "*Hegoak ebaki banizkio*…".

Integratze-prozesu hori, bestalde, olerkariari zaila edota luzea izan bazaio ere, erraz eskaintzen dio irakurleari, zapore askodun mokadu gozo bat bailitzaiguan, honelako poematxo ederrean bezala, non biltzen zaizkigu naturaltasun osoz gizakia (ama!), lurra eta zerua:

Amaren begiratua
baldin bada lurtarra,
zeinek ukatu guri
zerutarra dela lurra?[4]

Ikuspegi orokor eta integratzaile horretan Joxanek xehetasun minimoak ere kontuan hartzen ditu, Jainkoaren antzera, zeinek gure buruko ile guztiak zenbatuak dituen eta kontuan hartzen noiz jausten zaizkigun: *Zuen buruko ileak ere denak zenbatuak dauzka Jainkoak* (Lk 12, 7).

Ikuspegi integratzaile hori argi ikusi genuen Joxanek antolaturiko emankizun orokorretan (*espectáculo total*, gaztelaniaz): testua, janzkera, dantza, musika, argia, koloreak, irudiak, isiluneak… JA denetaz arduratzen zen. Mikel Laboak aitortu zigun Joxan Artze izan zela 'Ez dok amairu'k egindako emankizun arrakastatsuetan ikuskizun *orokorra* burutu zuena[5].



Adibide bat. *isturitzetik tolosan barru* (1969) liburuan Joxanek Euskal Herriaren historia osoa laburbiltzen digu 100 orrialde inguruko testu batean: aurrehistoriatik, hots: *isturitzetik* → gaurdaino, hots: *tolosa*raino, alegia; eta, bide batez, euskal geografia orokorra ere erakusten digu: orrialde-zenbakien ordez, olerkariak Euskal Herriko lurralde guztietako herrien (txikien zein handien) izenak aukeratu baititu zein orrialdetan gauden seinalatzeko.

Joxanen olerki-ikuspuntu integratzailearen beste argibide bat ikus dezakegu mundu zabaleko kulturei ematen dien tratamendu arretatsuan. *Ortzia Lorez Lurra Izarrez* (2003) liburuan, esaterako, Joxanek eskuraezina zaion giza eta Jainkoaren misterioa argitu guran, kultura askoren laguntzaz baliatzen da: Yin-Yang, Tuareg olerkaria basamortuan, Vaixwanara, Taijasa, Prajna, Turiya, Ipar Ameriketako Siux-lakoten erlijioa, Sufismoa…

Oihana Auhenka (*Gémissements de la Forêt / El lamento del bosque*) olerki-abesti liburuan Joxanen ikuspuntu integratzaileak, testuaz gain, soinua eta oihanean bildutako arbola baten enbor-zati bat ere eskaintzen zizkigun irakurleoi… esperientzia eder horietaz guztiotaz: testua, soinua, oihanaz goza dezagun batera.

Ikuspegi integratzailearen ildoan, beste mota bateko lorratz asko agertzen zaizkigu Joxanen olerki-liburuetan. Ugariak dira Joxanen liburu bateko edota liburu ezberdinetako olerkien arteko loturak[6]. Hain ugariak dira olerkien edota liburuen arteko elkarrekiko erreferentziak ezen esan baitezakegu, arazo handirik gabe, Joxanen ia olerki-liburu guztiak liburu bakar baten liburukiak direla. *Ortzia Lorez* liburuko azken bertsoan olerkariak ohartarazten digunez:

Honako honen azkena,
hurrengo haren lehena.

Argitaratu berri dituen azken bi liburuetan, tituluak kateatuak daude[7]: *heriotzaren ataria dugu bizitza* ('heriotza' eta 'bizitza' minuskulaz, geroko 'Bizitzaz' bereizteko) eta *Bizitzaren atea dukegu heriotza* bigarrenarena.

Azken liburuotako azaleko lorea berbera da azal bietan ("***Ziguin lilia**, Sing dinastialdiko (XX. mendeko) margo izenpetugabea*"): *heriotzaren ataria dugu bizitza*ko lorea morea-edo da, *Bizitzaren atea dukegu heriotza*koa hori kolorekoa, giza bizi osoaren (hots, heriotzaren aurreko eta ondorengoaren) gaineko begiratu integratzaile eta gorazkoa. Olerkariak ezin hobeto argitzen digu: "***b**izitzaldian lehenik ninikatu, gero pipildu, geroago loratzen goaz poliki-poliki; gero eta lora eta lora loratuagotzen…**b**aina ba dakigu hemengo aldi eta alde mugatuotan ezingo garela beteki loratzera heldu. **o**rdea esana zaigu, eta agindurik, helduko garela. **N**oiz, nola, non ez badakusagu ere, bai sumatzen laino artean lez...* [8] ***b**ehin aldirik ez alderik den lurraldean beteki loraturik izango garenean, ez zaizkigu haatik erabat oroimenetik ezabatuko, hor xoko batean ukanen ditugu alde eta aldi mugatuotan iragan genituen pipil eta ninika aldiak laino artean lez…*"[9].

Olerki ezberdinen arteko loturek edo elkarren arteko erreferentziek beste funtzio bat betetzen dutela uste dut. Argiaren funtzioa, hain zuzen, Joxanen poemek elkarri ematen baitiote argia. Baliteke olerki bat irakurri eta ezer gutxi ulertzea, baina olerki gehiago irakurri ahala irakurritako olerkien alde ezkutuak argitzen ari zaizkigu, olerkariak apropos bilaturiko testu osoaren (testu osoen) barneko balio erreferentzialengatik, hain zuzen.

Olerkiak ez omen zaizkio idazleari beti bananbanan atera, tarteka, multzoka edo borborka baizik, sutan dagoen enbor bati txinpartak sortzen zaizkion bezala[10], non, batzuetan, espazio zuriak ere poetikoak zaizkion/zaizkigun: "***i**kusten halaber, bi olerki egokiro jostean, nola batak bestea zuen oparo aberasten; batak besteari bakarrean nabaritzen ez zitzaion beste esanahia ziola jalgierazten, eta gainera, ongi elkartuak baziren, bi olerkien artean idatzi gabeko beste olerki bat pizten zela irakurlearen gogoan…*"[11].

Biribiltasuna

Joxanen errealitatearen ikuspegi orokorrerako joera olerki liburuen *biribiltasunean* ere azaltzen zaigu. Olerkariak olerki-bildumetan, joan-etorri bat egiten du, olerki-gaiak edota errealitatea, haien osotasunean, alde batetik eta bestetik ikusi ahal dezagun.

Hori dela eta, Joxanek liburu bitan azaldu ohi digu errealitatetiko esperientzia (ikuspegi bitatik, alegia): *laino guzien azpitik*...(1973); *eta sasi guztien gainetik* (1973); *Ortzia Lorez, Lurra Izarrez* (1987); *Gizon haundia da mundua eta mundu txikia gizona* (1988); *Mundua gizonarentzat egina da, baina ez gizona munduarenztat* (1998); *heriotzaren ataria dugu bizitza, Bizitzaren atea dukegu heriotza* (2013).

Komenigarria da, beraz, irakurleak liburuak irakurtzerakoan osotasuna eta biribiltasuna ere kontuan hartzea. Olerkiak ez baitira pieza solteak izaten Joxanen liburuetan, sinfonia baten osagaia baizik.

Errealitatearekiko osotasun eta biribiltasunaren esperientzia, hots: olerkien poemetara zein artisten arte-lanetara behin eta berriz itzultzea ez zaigu, inolaz ere, ondoriorik gabea izaten. Bai Txillidak eta bai J. M. Lekuonak errealitatera hurbiltzeko espirala azpimarratu ziguten behin eta askotan. Joan etorri horretan, errealitatea gero eta sakonago, gero eta zabalagoa ezagutzen dugu, edota, hobeto esanda, errealitatea bera gero eta sakonago eta irekiago zabaltzen, barneratzen zaigu, munduaren, gizakiaren eta Jainkoaren misteriorako noranzkoan.

1969ko *isturitzetik tolosan barru*an, esaterako, Joxan eguneroko lanarekiko amaren lotura gogorraz gogoratzen da,

Ama hil zaigu
lanak itota,
lanaren amoreakatik
hil zaigu,
zertarako den bizitza
jakitera iritsi gabe...

Olerkariak, lehen ikustean, halako etsidura batean murgilduta ikusten omen du ama. Handik ia 30 urtera, olerkariari berriz itzultzen zaio irudi berbera eta, oraingo honetan, olerkaria amaren jakite sakonagoak esperimentatzera iristen da (iristarazten gaitu). Begiratuaren begiratuz, olerkariek ere errealitatea begiratzen ikasten dute.

Ez ote zekien
Gure amak
Zertan ari zen?
Ez ote,
'beti bizi behar balu bezala,
bazuen lan egiten,
eta egun berean hil behar balu bezala
bazen bizitzen'?
….

Ez ote zekiten
zertarako ari ziren?
Ez ote?

Ez zuten gaurkoon,
hiltzeko bakarrik bizi direnon antzik.[12]

Edertasuna

Osotasuna eta biribiltasuna, haatik, ez omen dira Joxan Artzeren azken muga. Joxanek edertasuna bilatzen du arte-eginkizun guztietan eta arte ez direnetan ere (ala dena da arte giza bizitzan?). Bilatze horretan Joxan zehetasun minimoetaraino iristen saiatzen da, halako perfekzionismo berezi batekin. Dena egon behar da bere lekuan, dena presente egon behar da une zehatzean. Joxan integratzaile dela esan dugu, zorroztaile ere bai, artisauen antzera, behin eta berriz artelanaren osagai txikietan ere orduetan eta orduetan ari diren bezala.

Edertasun horren bila, Joxanek hitzak, esaerak eta hotsak lantzen ditu behin eta berriz: nola esan, non kokatu… hitzek duten barruko distira osoa agerian jarri arte.

Hori dela eta, Joxan oso arduratsua da hitzen tamaina diferenteekin, letra lodi eta etzanekin konbinaketak egiten, espazio zuriekin ere bai, edota ahapaldiekin irudiak edo sortuz. Joxanentzat olerkia ez da soilik testu bat, irudi bat ere bada, osotasun bat, zeinaren bidez olerkariak edertasun esperientzia sorrarazi nahi dion irakurleari.

Ildo berean, azpimarratzekoa dugu nola olerkariak testuren batzuk inprenta moldez idatziak eskaintzen dizkigun, eta ez gutxitan eskuz idatziak ere bai, marrazki balira bezala, edertasunaz gain olerkariaren irakurleenganako hurbiltasuna ere sorrarazten duena. Zein sentipen ederra sorrarazten diguten txori-irudiek *laino guzien azpitik*..., *eta sasi guztien gainetik* liburuetan…; edota inurrienak *heriotzaren ataria dugu bizitza*n, olerkariak esan nahi baligu bezala: 'hortxe ere inurri txiki horretan edertasuna biltzen zaigu'.

Hori dela eta, Joxan Artzek marrazkiak sartzen ditu olerki liburuan, ez soilik testurik gabeko orrialdeetan, baizik eta testu orrialdeetan beraietan ere bai. J. L. Zumeta lagunaren *laino guzien azpitik*...; *eta sasi guztien gainetik* liburuetako marrazkiak izugarri politak ditugu. Azpimarratzekoak ere Jexux anaiari, haren heriotza goiztiarra zela eta, Joxanek eskainitako *Jesus Mari oroituz* liburuxkan (txikia tamainoz, handia edukiz) txinatar loreen marrazki finak ere bai. Hunkigarria azken bi liburuetan idazleak "*bere biziaren begi dituenak*" marrazturiko loretxoak sartu izana liburuon eskaintza loratuetan[13]. Zer adierazten digute azken bi liburuotan agertzen zaizkigun inurriek?[14]

Edertasunerako Joxanen gosea edota helburua bizitza edota errealitatearen (g)une guztietara zabaltzen da. Zein ilusioz mintzatu zitzaigun, Gabon arratsalde batean, Ataunen edota Usurbilen proiektatuta zegoen ibilbide batez, basoan zehar luzatuko zena, pagoak eta iturriak lagun, zeinetan tarteka Joxanen olerkiak jarriko ziren euskarri xume baina dotore batzuetan paseatzaileek irakurri ahal zitzaten ibili ahala. Denak bilduta edertasun besarkada batean: lurra, errekatxoa, pagoak, euskara, ekologia, olerkia, aireko musika… Lastima, oraingoz bederen, proiektu hutsean geratu izana.

Sakratua

Edertasuna, Oteitzaren biribilak bezala, transzendentziara igarobide izaten dugu. Bibliak ezin hobeto azaltzen digu edertasunak sorrarazten duen transzendentzia– edo erlijio-dimentsioa, besteak beste Irteera liburuko Horeb mendian Moisesi gertatu zitzaion teofanian (Moisesen bizitza guztiz aldatu zuena). Moisesek urrutian sasi bat sutan ikusi zuen. Ba ote dago ezer politagorik mendian edota basamortuan sua baino? Hurbildu eta barruko ahots bat entzun zuen: "*Ez hurbildu. Erantzi oinetakoak, zauden lekua lur santua baita*" (Ir, 3, 1-5). Bai, sugarren arteko, pagoen arteko… lurraren arteko edozein errealitateren edertasunean "*Jainkoaren aingerua*" (Jainkoa bera) agertzen zaigu (ager dakiguke)… eta Joxan dugu agertze horren lekuko eta ohartzaile:

Pagoa zuri, usoa xuri,
o, hegaztia zuhaitz bihurtu,
zuhaitza mendi, mendiak elurrezko hodei,
hodeiak elurrezko mendi eta ohian…
zuri nonnahi,
zeru-lurrak zuriturik…

ene!, zuritasun hartan barrena,
zelako zabalaren goratasuna,
goratasunaren barrentasuna ¡[15]



Laburrean

Errealitatearen osotasunak, biribiltasunak, edertasunak, dimentsio sakratuan sarrarazten du Joxan (sarrarazten gaitu gu ere), erlijio-dimentsioan, alegia, mundu osoa Jainkoaren etxe bihurtzen baitute, Jainkoaren ispilu, zeren, Done Joan Gurutzekoak azaldu zigunez, Jainkoaren edertasuna nonahi agertzen zaigun: "*Ederrak eder ereinez / txara hotatik joian lasterrez / eta euroi so eginez / bere irudi huts bakarrez / jantzirik ditu itxi ederrez*".

Errealitatearen olerki- edo erlijio-transformazio hori tentsiorik gabe gertatzen zaigu, zeren lurra, izarrak, arbolak, gizakiak… Jainkoaren presentzia-

ren kandelak bezala biztuta ditugu. Gorentasunaren eta barrentasunaren armonikoak, berengandik eurengandik miretsiak eta maitatuak, lurra, izarrak, arbolak, loreak, izakiak, gizakiak, batez ere, mundu honetako gauza ederretan ederrena, (g)une sakratuak baitira, eta profetek (poetek kasu, Joxanek, adibidez) horretaz ohartarazten gaituzte:

jaiotzean, ama da lehenik ezagutzen dudana, …

gero ezagutzen dut atta,…

geroago, ikusirik abereek ni bezala senditzen dutela,
landareak ni bezala bizi direla,
harriak ni bezala, izan, direla,
lurra, ura, sua, haizea eta eterraren antzera,
haik ere maite ditut, eta haik maitatzean
nigan den eterra, haizea, sua, ura eta lurra,
harria, landarea eta aberea maite ditut,
maite dut neure burua,
maite dut naizena.

eta naizena maitatzean, maite ditudan guztiekin batera,
Zu maite zaitut, Zugandik naiz eta naizen guztia,
Zu maite zaitugu, Zugandik gara eta garen guztiok.

Zu maite, Zuk zeure sorkari guztiak maite dituzun legez.[16]

OHARRAK

[1] Transzendentzia → ← inmanentzia → erlijio-dimentsiora.

[2] HEIDEGGER, M., *Holzwege*, 250.-251. or.: "Poetas son los mortales que (...) sienten la huella de los dioses que han huido, permanecen en su huella y así rastrean para los mortales afines el camino hacia el cambio... Ser poeta en una época de penuria significa: reparar cantando en las huellas de los dioses huidos. Por eso el poeta dice lo santo en la época de la noche del mundo". "Lo que dura lo fundan los poetas" (Holderlin).

[3] Izenak eta batez ere goi-izenak garrantzizkoak izaten dira Joxanen olerki-lanetan: *isturitzetik tolosan barru neurthitzak* liburuan Joxean Artze; *Ortzia Lorez Lurra izarrez*-en, j.a. ARTZE; *mundua gizonarentzat egina da…* liburuan JosAnton Artze; *Bizitzaren atea…* eta *heriotzaren ataria…* joxan Artze. Hasierako liburuetan Hart*zabal*, gerokoetan Hart*zut*…

[4] *mundua gizonarentzat…* Zubi Zurubi, Usurbil, 1998, 27. or.

[5] "Errezitatuen osagarri gisa, kaio oihuak, haizearen durundia, itsasoaren burrunba, arraunlarien hotsak eta gregorianoa, ardi zintzarriak ibilian, behorren irrintziak, uraren gulu-gulua, Arizkungo zanbonba, Iturengo zapantzarra edo Arantzazuko ezkilak erabili ditu".

[6] Gai errekurrenteen artean, izadia, kasu: harria, lorea, pagoak… animaliak: txoriak…; gizakiak: ama, batik bat; Jainkoa, belo askoren pean agertzen zaiguna: Misterioa, Maitasuna, Zabaltasuna, Sakontasuna, Hurbiltasuna… Gai horiek eta antzekoak askotan agertzen zaizkigu Joxanen olerkietan testuinguru berdintsu edo ezberdintsuetan.

[7] bizitza → Bizitzaren

[8] *heriotzaren ataria dugu bizitza*

[9] *Bizitzaren atea dukegu heriotza*

[10] *heriotzaren ataria dugu bizitza*, "**i**datziak irakurtzeko ia astirik gabe. **A**skotan, olerki bat bukatzeko astirik gabe horra non heltzen zitzaidan bestea eta hau burutu gabe beste bat eta beste bat".

[11] *Bizitzaren atea dukegu heriotza*

[12] *mundua gizonarentzat…*, o. c., 27, or. "JosAnton Artze gure artean", *maiatz* 32, 1999-azaroa: "Iduritzen zait gure amak bazekiela lan asko egiten bazuen, zergatik egiten zuen. Orduan, hor, arantza bat sartuta neukan eta arantz hori ateratzen saiatu naiz eta nola hori publikoki kantatua izan zen, hau ere kantatu behar dut".

[13] Barka dakidala bertsoa aldatzea euskal errelatiboak behartuta. JAen bertsoa horrelaxe da: "ene biziaren begi ditut orain".

[14] Olerkariaren presentzia ezkutu lagungarria ote?

[15] *Bizitzaren atea dukegu heriotza* 1996-II-I

[16] *Ibidem*, 2005-IX-5 (hasi ta buka)

SEBASTIAN GARTZIA TRUJILLO

Lauaxetaren *Ludi honen bestaldez* liburuaren aurkezpenean

Idatzi hau Sebas Gartziak irakurri eban Mungian Lauaxetaren Ludi honen bestaldez *liburuaren aurkezpenean, 2013ko martiaren 21ean*.

2012ko bagilaren hogeita bostean, Esteban Urkiaga *Lauaxeta* hil ebela hirurogeita hamabosgarren urtemugea gogoan izanda, Labayru Institutuari, euskal erakunde batzuen laguntzeaz (Laukiz eta Mungiako udalak tarteko) Lauaxetaren olerkiak berrargitaratzea otu jakon. Merezi ete dau Lauaxetaren olerkiak berrargitaratzea, gaur egunean, noiz eta literaturea orokorrean, baina batez be, olerkiliburuak gitxi baino gitxiago irakurten diran? Bai, bai eta bai.

Hiru bider berresan dot *baietz*, berrargitaratze horren hiru errazoi aitatuko deutsuedazalako: lehenengoa, jaiotzez laukiztarra, baina adopzinoz mungiarra dogun Esteban Urkiaga *Lauaxeta* olerkari ona izan zalako; bigarrena, ona izateaz ganera, garrantzi handikoa be izan zalako Euskal Pizkunde garaian, ezagutu beharrekoa, beraz; eta hirugarrena, euskal irakurle gehienok, orain arte behinik behin, ez deutsagulako Lauaxetari merezi dauen besteko begiramena eskeini. Esandakoaren azalpenak jarraian emongo deutsuedaz.

1. Esteban Urkiaga olerkari ona izan zan. Denpora-estureagaitik, ez dot honetaz luze jardungo. Hiru datu besterik ez dot ekarriko:

1.- Euskal ikerlariak, orain arte, tesi bi eta hamaika lan egin dabez, Lauaxetaren literatur ondarea aztertu eta goratzeko; ez da gitxi. Lehenen-



go tesia gure artean dogun eta herritar dozuen Jon Kortazarrena da: *Teoria y práctica poética de Lauaxeta,* 1986an argitaratua; bigarren tesia Josu Penades bermeotarrarena dogu: *Lauaxeta, historian hezurmamituriko sinesmena* (1996. urtean).

2.- Lauaxetak Euskal Olerki Eguna lehenengoz ospatu zaneko lehen saria irabazi eban *Maitale kutuna* deritzon olerkiagaz, lehiakide nortzuk eta Orixe eta Lizardi izan ebazan. Ez edozelako hirukotea, barriz. Jon Kortazarrek esan deuskunez: Hirurak euskal poesia Pizkunde handi batera eroan eben.

3.- Lauaxeta, abestietan. 1978an, Antton Valverde abeslari gipuzkoarrak Lauaxeta bizkaitarraren olerkiak aukeratu ebazan osatu dauen diskorik ederrenerako *Lauaxeta Mendeurrena*, 2005ean berrargitaratu egin ebana[1]. 2005ean be, Lauaxeta jaio zanetik ehungarren urtea ospatzeko, Mungiako Udalak babestuta eta Rafa Ruedak koordinatuta, modan zeuden euskal abeslariez (Jabier Muguruza, Xabier Montoia, Anje Dualde, Gari, Mikel Urdagarin…) osaturiko talde batek Lauaxetaren olerkiz osaturiko disko berri bat *Ehungarrenean hamaika* grabatu eban, eta urte berean Xabi Strubellek beste disko bat argitaratu be, Lauaxetaren bost olerkiakaz.

2. Esteban Urkiaga garrantzi handiko eta ezagutu beharreko olerkaria da. Lauaxeta euskal olerkaria izan zan, euskal literaturea biraketa bat egiten hasia zan une zehatzean. XX. mendearen hasieran, euskal literaturgintzea modernizatzeko ahaleginean, alde batetik, jesuiten eskolakoak tiratuten eben irmo eta sendo (Orixe, Ibinagabeitia, Zaitegi, Mujika…); eta hantxe ibili zan Lauaxeta be. Bestalde, Euskaltzale taldekoak be buru-belarri ibili ziran euskerearen eta euskal literaturearen alde, eta hantxe be Lauaxetak parte hartu eban; eta azkenik, Sabino Aranaren jarraitzaileak be, sutsu –adjektibo hau ez da metafora hutsa– eutsi eutsien euskerearen defentsan. Eta hantxe izan genduan Lauaxeta be, gure hizkuntzearen aldeko lehiaren lehenengo ilaran.

Zurrunbilo horren erdi-erdian Lauaxeta gaztea militantea izan genduan. Hori dala eta, Esteban Urkiaga euskal literaturarako ez ezik euskal kulturarako be guztiz determinantea izan zan eta euskal literaturearen modernizazinoaren ikurtzat hartu geinke. Ez da gatxa, beraz, aditzea zergaitik bururatu jakun Lauaxetaren olerkiak berrargitaratzea.

Jesuiten eskolatik, Lauaxetak literatura klasikoetarako gustua ekarri euskun, baita Europako olerkari sinbolistenganakoa be (Verlaine, Rimbaud, Baudelaire). Ez da gitxi, euskal herri-literaturearen kanonetatik libratzeko, arrakasta handi barik, ahaleginetan ibili ziran[2]. Laster, baina, sabindarren eragina nagusitzen hasi zan, herri gai eta moldeai eta fonetismoai lehentasuna emonaz. Onerako zein txarrerako, ez zan Lauaxeta sabindarren eraginetik urrin izan, alderantziz. Alkarren kontrako eraginen lekuko geratu jaku. Lauaxeta, batetik, modernista; eta bestetik, antimodernista. Nork gehiago emon?

3. Euskal irakurleak, orain arte, orokorrean, ez deutse Lauaxetari merezitako arreta eskeini, **olerkari gatxa izanaren entzutea zabaldu zalako**. Bernardo Atxagak behin esan eban Lauaxetaren olerkiak, lehenengoz irakurri ebazanean, polonieraz idatzita egozala begitandu jakola. *Laarrik ez onik* edo erantzun zion Koldo Mitxelenak. Baina errazoi apur bat ez jakon Bernardo Atxagari falta, gatxa da-eta sinbolismoaren irudi goi modernoak adierazotea, Mungialdeko Altzapean bakarrikedo darabilzuezan berben bitartez. Izan be, Lauaxetak ia muturreraino mirestu eta jarraitzen eutsan Sabino Aranaren hizkuntza-lokalismoak estu-estu bete ohi ebazan, eta holan, behin baino gehiagotan, dala lexiko errazoiakaitik, dala morfologia bitxikeriakaitik, dala herri fonetismoakaitik, Lauaxetaren

olerkiak gatxak izaten ziran irakurri eta ulertzeko orduan, eta horrexegaitik egon dira bazterrean itxita. Halandabe, eta larregikeriak larregikeria, Lauaxeta dogu bizkaiera landuan olerkaririk lehen eta omentsuena. Irakurri barik itxi ezin geinkena, kalte handi barik.

Horixe izan da, hain zuzen, Lauaxetaren olerkiak berrargitaratzeko euki dogun zergaitiko nagusia: jatorrizko testua traizionatu barik, ezpada ze ahalik eta ondoen jagonaz, Lauaxetaren olerkiak gaurko bizkaiera arautura ekarten ahalegindu gara, gaurko eta biharko irakurleak atxakiarik euki ez dagien Esteban Urkiagaren obra ez irakurteko.

Ez naz sartuko oraingoan egin dogun moldaketeaz eretxia emoten, hori espero doguzan irakurleai dagokie-eta. Baina bai kontauko deutsuet lan honen bitartez zelako esperientzia izan dogun.

Geuri be, lanaren hasieran Lauaxetaren testuak polonieraz idatziak ez, baina zailak zirala iruditu jakun; baina, egia esateko, moldaketa gitxi eta sarritan errepikakorrak eginda, testuak, errezak ez neuke esango, baina ulergarri eta adierazkorrak bihurtu jakuzan, gustagarriak, gozoak. Ea esperientzia bera dastatzen dozuen zuetariko askok.

Niri tokatu jat Lauaxetak idatzitako olerkien berrargitalpen barriaren aurkezpena zuen aurrean egitea. Baina lan honetan, beste lagun batzuek be parte hartu dabe: Antton Mari Aldekoa-Otalorak, Adolfo Arejitak, Xabier Bovedak, Alberto Erraztik eta neuk. Jon Kortazarrek sarrera mamitsua idatzi deusku eta Xabier Egañak marrazki ederrak burutu. Guztioi zorion eta eskerrak egindako lanarengatik. Ea aurrerantzean be honelako lanakaz jarraitzeko gauza garen.

OHARRAK

[1] Abestiak: Azken oyua, Mendigoxaliarena, Itauna, Langille eraildu bati, Zelayan, Amayur gaztelu baltza, Agur Euzkadi…

[2] SARASOLA, I., *Euskal idazleak, gaur*, Jakin, Oñati-Aranztazu, 1977: Lauaxetaren *Bide Barrijak* (1931) liburuaz hauxe dio: "Punto de partida de una obra poética que hubiera podido suponer la occidentalización, tan necesaria, de la literatura vasca de la preguerra".